

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINТZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

42. astea (2025eko urriaren 13tik 19ra)


Gripe-birusaren zirkulazioak goranzko joera du bai lehen mailako arretan, bai ospitaleetan. Bronkiolitis diagnostikoek gora egin dute lehen mailako arretan eta COVID-19renak behera egin dute aste honetan.

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 366,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (384,5/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen tasak azken asteetako goranzko joera mantentzen du, bronkiolitisarenak gora egin du azken astean eta COVID-19renak, ordea, behera egin du aurreko astearekin alderatuta.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 64 lagin jagoleen % 60,9 baieztatu da, 12 gripe-birus eta 2 SARS-CoV-2 detektatu direlarik, baina ez ABSik. 23 errinobirus ere detektatu dira.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 12,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (11,6/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 228 gripe-birus, 69 SARS-CoV-2 eta 3 ABS erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 366,0 kasukoa izan da (384,5/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 250,3/100.000 izan da Araban, 404,2/100.000 Bizkaian eta 359,0/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 3434,3 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1994,0 eta 462,1 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 157,2 kasukoa izan da (158,8/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute aurreko astearekin alderatuta ia ESI guztietan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 42. astea	Tasa 41. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	267,5	305,9	0,87 (0,79-0,96)
Arabar Errioxako ESI	560,4	509,5	1,10 (0,78-1,56)
Barakaldo-Sestaoko ESI	386,4	393,5	0,98 (0,87-1,11)
Barrualde-Galdakaoko ESI	406,4	427,7	0,95 (0,88-1,03)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	452,7	456,5	0,99 (0,92-1,06)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	411,7	400,5	1,03 (0,92-1,15)
Uribeko ESI	300,0	308,6	0,97 (0,87-1,08)
Bidasoako ESI	304,4	321,1	0,95 (0,79-1,13)
Debararrenako ESI	355,2	362,1	0,98 (0,83-1,17)
Debagoienako ESI	223,2	316,3	0,71 (0,57-0,87)
Donostialdeako ESI	354,8	379,4	0,94 (0,87-1,01)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	389,5	422,7	0,92 (0,80-1,06)
Tolosaldeako ESI	441,7	460,2	0,96 (0,82-1,13)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasak 15,5 kasu 100.000 biztanleko balioraino egin du gora (10,2/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du ere eta 259,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (194,8/100.000 aurreko astean), eta COVID-19arena 100.000 biztanleko 6,5 kasutaraino jaitsi da (9,5/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 64 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 60,9 baieztatu dira. 12 gripe-birus eta 2 SARS-CoV-2 atzeman dira, baina ez ABSik. 23 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAn eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



SARS-CoV-2aren positibotasuna % 3,1ekoa izan da (% 1,8 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna pixka bat igo eta % 18,8an kokatu da (% 17,9 aurreko astean). Bestalde, ABSren detekziorik atzeman gabe darrai LMAk. Errinobirusak, beheranzko joera izan arren, oso positibotasun altua izan du berriro ere, % 35,9an kokatuz (% 44,6 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE


	42. astea		41. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	12	18,8	10	17,9	22	14,0
SARS-CoV-2	2	3,1	1	1,8	7	4,5
ABS	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Metaneumobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Parainfluenza	2	3,1	4	7,1	5	5,1
Adenobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Errinobirus	23	35,9	25	44,6	68	43,3
Urtaroko CoV	1	1,6	2	3,6	4	2,5
Enterobirus	1	1,6	0	0,0	1	0,6

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik erartortzen direnak. AIAL tasa 12,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (11,6/100.000 aurreko astean), 14,2/100.000 gizonetan eta 11,4/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 36,9 kasurekin, ondoren urte batetik beherakoen eta 45-64 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 21,8 eta 7,0 kasurekin, hurrenez hurren.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 1,6koa izan da 100.000 biztanleko (0,9/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 0,0koa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,5 kasukoa 100.000 biztanleko (0,6/100.000 aurreko astean).

Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 6,2ra jaitsi da (% 7,5 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasunak gora egin du aste honetan, % 21,2an kokatuz (% 15,2 aurreko astean), eta ABSrena % 0,0koa izan da (% 0,7 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna altu mantentzen da % 32,6an (% 29,2 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	42. astea		41. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	193	6,2	200	7,5	619	7,9
Influenza	146	21,2	145	15,2	469	18,6
ABS	133	0,0	137	0,7	436	0,5

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 228 gripe-birus, 69 SARS-CoV-2 eta 3 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 228 gripe-birusetatik, 142 A motakoak izan dira, 51 A(H3) eta 35 A(H1)pdm09. 2025/40 astetik 489 detekzio erregistratu dira, guztiak A motakoak. Azpitipatutako A motako 273 birusetatik, 134 (% 49,1) A(H3) eta 139 (% 50,9) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko urriaren 23an

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza